# FUNTSEZKO ELKARTEA

Kide proiektuko kide bakoitzaren inbertsioarekin jarriko litzake martxan. Izan ere, kide bakoitzak 6.500€ jarriko ditu proiektuko lehenengo gastuei aurre egin eta proiektua aurrera eramateko. Gainera, proiektuan, kide bakoitzak funtsezko baliabide bat jarriko du.

Bideoak egin ahal izateko, hezkuntzan lan egiten duten profesionalen laguntza beharko dugu, baliabideak eskuratu eta arriskuak murrizteko. Horregatik, bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleekin lan zuzena egingo dugu eta hortaz, beraiekin elkartuko ginateke, bideo egoki eta onak sortu eta eskaintzeko. Irakasle bakoitzari bideo bakoitzeko lana eskainiko diegu, bideoaren arabera, kopuru bat edo beste ordainduz. Izan ere, hainbat gaietako bideoak egingo ditugunez, irakasle bat baino gehiagorekin kontaktatuko dugu.

Webguneari dagokionez, guk egingo badugu ere, hosting zerbitzua eskaintzen duen enpresa baten zerbitzuak kontratatuko ditugu, webgunearen mantenimendu eraman dezaten.

Aplikazioari dagokionez, gure proiektuarentzat ezinbestekoa da aplikazio bat izatea, eta sortzeko nahikoa ezagutza ez dugunez, enpresa bat kontratatuko dugu, aplikazioa sortu eta martxan jartzeko. Honela, baliabideak eskuratu eta negozioa optimizatzeko aukera dugu.

Horretaz gain, bideoen hasieran hezkuntzara bideratuak dauden artikuluen iragarkiak jarriko ditugunez, artikulu horien enpresekin elkartuko gara.

